



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2017/06/14

BILERA ZENBAKIA:6

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan herriko plazan

PARTEHARTZAILEAK: Amaia, Joxeluis, Iker, Marijo, Danel, Unai, Jabi, Maite eta Maddi

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. ELKARTEEN EGUNA.

Arratsaldeko 19:00etan plazan elartu eta aurrez prestatutako muralak azterten hasi gara:

KULTURA BATZORDEA: aipatu da ekintza asko egiten dituztela eta batzuk urtez urte mantentzen direla. Berri batzuk ere sartu dituzte eta batzuk ondo funtzionatzen dute, beste batzuk aldiz ez.

Jendeak egindako komentarioak:

- Lana baina giro ederrean.
- Ekintza arrakastatsuek urte luzeetan partaidetza handia dutenak.
- Ekintza asko, oso interesgarriak, baina ba al dago helbururik, kohesiorik?
- Zein modutara erakarri beste pertsona batzuk ere?
- Herri txikia izan arren kultura batzordeak urteetan zehar ekintza asko antolatu ditu nahiz eta pertsona gutxi izan.
- Askotan ekintza gehiegi.
- Ekintzen errepikapena, berrikuntza?
- Jendea lanerako prest al dago?
- Janaria = partaidetza
- Ekintza ugari eta anitzak, Herri Bizia!



JUBILATU ELKARTEA: azken urte hauetan emaniko aldaketa aipatu da. Lehen beraientzat soilik ziren ekintzak antolatzen zituzten eta orain herrira irteten dira (tipi-tapa herrikoia, eskolarekin harremanak...) Gainera asko indartu den elkarte bezala ikusten da eta partaidetza handia duena.

Jendeak egindako komentarioak:

- Earra emandako saltoa, segi horrela!
- Jubilatua ere direla eta izan behar dutela herritarrekiko.
- Elkarte bizirik dagoela ikustea.
- Ederra elkarteak izan duen bilakaera herrira zabalduz.
- Elkarte itxi bat izatetik herriko eragile garrantzitsu bat izatera pasa dira. Pauso oso garrantzitsua!
- Herriak benetako eragile aktibo, zorionak!
- Parte hartzeko gogo handia eta dedikazioa, EREDUAK!

ITSASONDO 2.0: Hurrengo urtean 10 urte beteko dituela aipatu da. Saiakera batzuen ondoren dinamika finkatu eta pixkanaka aurrera ateratzen dugun proiektua da.

Jendeak egindako komentarioak:

- Lan asko eginda, gustura jasotzen dugu etxean.
- Lan bikaina! Deseatzen egoten gara etxera iristeko.



- Lujo bat, mantentzea guztion esku!!
- Herri txiki, aldizkari handi! Ikaragarritzko lana! Zorionak!
- ZORIONAK ETA SEGI HORRELA!
- Ezin det sinistu 36. alera iristea.
- Herrian gertatzen diren eta jabetzen ez garenaren inguruko informazio asko ematen du. Segi horrela!
- Lan bikaina baina jende gutxi “erabakiak” hartzeko. Elkargune fisikoa izatea ere ongi legoke, iritziak, proposamenak eta ardurak (ahal bada) elkarbanatzeko.

ARBELAITZ: azken urteetatik hona izan duen bilakaera aipatu da. Egoera ekonomiko txarrari aurre egiteko pintxo potea eta garagardo festa antolatzen hasi ziren eta gaur egun oso finkatuta daudenen ekintzak dira.

Jendeak egindako komentarioak:

- Eskertzen da zuen parte hartzea herrian. Antolatutako ekintzak arrakastatsuak dira eta Herri Bizia izateko aportazio handia egiten duzue!
- Herriko hainbat ekintza burutzeko toki aproposa. Behar-beharrezkoa berak antolatutako ekintzetan pertsona “desberdinek” parte hartzen dutelako.
- Esertzekoa da arbelaitzen presentzia. Beti prest lanerako, zorionak!
- Jubilatuen antzera herrira ireki den eragilea! Aldaketa positiboa!
- Elkarte gastronomiko bat baino gehiago.
- Esku bat botatzeko beti prest!

EUSKARA TALDEA: Konturatu gara euskaraz hitz egiten badugu ere, gure



hizkuntza maila ez dela egokia eta beraz, arnas-gune garen heinen egoera hau aldatu behar dugula. Hori horrela euskara taldea sortu eta pixkanaka dinamika ezberdinak eraman dira aurrera, taldearen erritmoa errespetatuz.

Jendeak egindako komentarioak:

- Beste taldeen proposamenek eta laguntzak lanketa erraztuko lukete.
- Talde klabea da.
- Euskarak beti behar du bultzada!
- Beti alertan egon beharreko gaia.
- Dagoen problematika argitaratu behar da.
- Euskara ikastaroa, positiboa.
- Talde bezala ateratzea oso positiboa da.
- Aupa bikote! (Milagros eta MariaBitoria korrika egunean argazkia).

HAURREN HERRIA: Hasieran egin zen prozesua laburki azaldu da. Orain eskola hezkuntza proiektuarekin buru belarri dabilela eta guraso elkartearen hausnarketa prozesuan dagoela azaldu da.

Jendeak egindako komentarioak:

- x??
- ???



- Estrategikoa herriaren etorkizunerako
- Ezagutzera eman egindako lanketa – hausnarketa eta herrira begirako asmoak, planak, helburuak ??
- Herriko motorra izango dena ondo estrukturatuta badago.
- Herria beirako proiektua bada herritarrei zabaldu behar zaie, horretarako egokia al da izena?

GALDU DITUGUNAK: azken atal modura urte luzez, baina gaur egun egiten ez ditugun ekintza batzuk aipatu ditugu, hala nola, Alzagarateko igoera, ziklokrossa, herri eguna, Sorginemak emakume taldea... Etapak izaten direla eta batzuk galtzea normalizat jotzen da. Egia da kirol taldearen inguruan bai ikusten dela hutsune handi bat kirolaren inguruko jarduerak antolatzerako orduan, baina hori da oraingo errealitatea eta onartu behar da.


Beraz, **hausnarketa** moduan aipatu dugu gauza gehiegi egiten ditugula eta beti betikoak gaudela bai antolaketan eta bai parte hartzen. Horregatik, jende berria ekartzen proposatzen da, baina ez dakigu nola.

Bestalde, ekintza asko inertzian antolatzen dira eta beraz, berrikuntzak sartzea askotan zila egiten da. Ildo honetan, askotan ez dugu hausnartzen antolatzen duguna zertarako antolatzen dugun.

Gainera, azken aldiaren Ongizatek ere martxa handia hartu du eta ekintza asko antolatzen hasi dira, beraz, agenda aldetik ere gehiegitasuna nabari da, egutegia ikusi besterik ez dago.

Ildo honetatik, Jabik, Ongizate batzordearen berri eman digu. Aipatu duen bezala azken aldiaren taldea murriztu egin da eta horrek antolaketarako zailtasunak ekarri dizkie. Bestela, egiten dituzten ekintzak arrakastatsua izan dira, Errefuxiatuena ikusi besterik ez dago.

Beraz, esan dezakegu orokorrean egoera berdinean gaudela, ekintza asko



antolatzen ditugu eta jende gutxi daukagu, beraz hausnarketa bateratu bat egitea beharrezkotzat jotzen da eta jendearen ardurak eta konpromisoak neurtzea ekintzak antolatzerako orduan.

ETXEKO- LANAK

NOIZKO?

ZEINEK?

HURRENGO BILERA

Uztailak 19, asteazkena, arratsaldeko 19:00etan | GAIA: AURREKONTUAK